



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.01.18

Ordua: 18:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Pelle Ttiki hartzaindegia arautzen duen ordenantza. Hasierako onespena.
3. Pelle Ttiki hartzaindegiko zerbitzuengatik preziok arautzen dituen ordenantza fiskala. Hasierako onespena.
4. Arantzako Erakuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala. Hasierako onespena.
5. Nafarroako Torturaren Sareari buruzko adierazpen instituzionala.
6. Alkate ebazpenak.
7. Galderak eta eskaerak.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA

2022/12/22ko akta aho batez onartu da.

2. PELLE TTIKI HAURTZAINDEGIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak Pelle Tiki haurtzaindegia arautzen duen ordenantzaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Horri dagokionez, idazkariak adierazi du ordenantzari hasierako onespena emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- Pelle Tiki haurtzaindegia arautzen duen ordenantzari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onepenaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrek aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. PELLE TTIKI HAURTZAINDEGIKO ZERBITZUENGATIK PREZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak Pelle Tiki haurtzaindegiko zerbitzuengatik prezioak arautzen dituen ordenantza fiskalaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Horri dagokionez, idazkariak adierazi du ordenantzari hasierako onespena emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KIDEEN LEGEZKO ZENBAKIAREN GEHIENGO ABSOLUTUAREN ALDEKO BOTOAREKIN, ERABAKI DU:

- 1.- Pelle Tiki haurtzaindegiko zerbitzuengatik prezioak arautzen dituen ordenantza fiskalari hasierako onespena ematea.

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharri aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. ARANTZAKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak Arantzako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren nondik norakoak azaldu dituzte. Zentzu horretan, aipatzekoa da ordenantzaren helburu nagusia dela autokontsumorako eguzki energia edo bertze energia berriztagarri batzuk termikoki edo elektrikoki aprobetxatzeko instalazioei EIOZri dagokion %95eko bonifikazioa aplikatzea (Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 170 bis. artikulua).

Horri dagokionez, idazkariak adierazi du ordenantzari hasierako onespena emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalari hasierako onespena ematea.

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharri aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. NAFARROAKO TORTURATUEN SAREARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Alkateak *Nafarroako Torturatuen Sarea* elkartearen nondik norakoak azaldu ditu. Zentzu horretan, erakunde publikoek tortura kasuak argitzeko emandako urratsak azaldu ditu.

Jarduera hauek guztiek argi erakusten dute azken urteotan aurrerapausoak ematen ari direla giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsona guztiei egiaren, aitortzaren eta erreparazioaren

bidean. Gizarteari zor zaio, etorkizuneko belaunaldiei, gertatutakoa argitzea, hori baita modurik eraginkorrena torturaren praktika desagerrarazteko.

Botere publikoek motibazio politikoko egintzek eragindako giza eskubideen urraketari buruzko egiaren ezagutzan, eta biktima hauen errekonozimenduan eta erreparazioan lagundu behar dute. Horregatik, udalek eta toki-erakundeek ere urrats eraginkorrak eman behar dituzte egiaren aitortzan eta erreparazioan aurrera egiteko. Are gehiago, herritarren artean kalte hori pairatu duten pertsonak baldin badaude.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL HAU EGIN DU:

- 1.- Arantzako Udalak elkartasuna eta aitortza agertzen du torturaren eta tratu txarren biktima diren nafarrei, eta, bereziki, udalerrri honetako bizilagunei.
- 2.- Udalak bere konpromisoa adierazten du egiaren ezagutzan eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko.
- 3.- Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tortura eta tratu txarren praktika saihesteko eta ezabatzeko beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ditzala, ez errepikatzeko mekanismoak ezarriz.
- 4.- Udalak akordio honen berri emanen die Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetzako Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari, jakinaren gainean egon daitezen, eta onespeneraren berri emanen dio "Nafarroako Torturatuen Sarea" Elkarteari, helbide elektronikoa honetan: nts.harremanak@gmail.com

6. ALKATEAREN EBAZPENAK.

157/2022, 1/2023 eta 2/2023 Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETZI EGIN DIRA.


7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte

